

FUNTSEZKO ELKARTEAK

- Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua energia berriztagarriak erabiltzen dituen enpresa bat izango da eta horien eraginkortasuna ostal baten bidez frogatuko dugu.

Bezeroei dagokienez, gu eta inbertsoreak izango gara. Guk enpresaren ideia eta funtzionamendua antolatuko dugu nagusiki eta inbertsoreak enpresaren finantziatzioaz arduratuko dira, beraiek izango direlako gure diru-iturri garrantzitsuena. Hala ere, gure enpresarekin batera hostal bat izango dugu haren eraginkortasuna frogatzeko, eta hortaz, zenbait kolaboratzaile izango ditugu hostalean ere.

Aldiz, hornitzaileei dagokienez, energia berriztagarrien aplikazioa burutuko duten enpresak izango dira gure hornitzaile nagusiak. Horien artean, *Bureau baterías y equipos AC/DC, Eco-Instalaciones Olaguibel, Askanature, Globalneveo, Oberón Solar*, etab. egongo dira.



- Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?



Bai bezeroak eta baita hornitzaileak izango dira garrantzitsuak gure enpresarako. Alde batetik, bazkideek balio erantsia ematen dute enpresan eta zenbait oztopo ere ezabatzen dituzte. Hori dela eta, ideia on bat izateko gai den bazkide batek, enpresaren hedapena eta hazkundea ahalbidetuko du.

Bestalde, hornitzaileak dira enpresa eta negozio guztien euskarri nagusia; izan ere, gauzatu beharreko funtzioa edozein dela ere, enpresa eta negozio guztiek beren lana egin ahal izateko lehengai nahikoa lortu beharko dute. Eta horregatik, lehen produktua emateaz arduratuko den hasierako hornitzaile bat beharrezkoa izango dugu, ondoren gure langileek lehengai horiek energia berriztagarrietan bihurtu eta bezeroei era egokian eskaintzeko.